



2022-2025
Ekintza Plana

Berrituko Udala

2022ko abendua

Aholkularitza teknikoa



Zelaia.arrantxu@gmail.com

Laguntzailea





EDUKIA

Sarrera	2
Helburua	2
Metodologia	3
Ekintza plana	7
Jarraipen batzordea: Edadetuen lan mahaia	21
Ebaluazioa	21

SARRERA

Osasunaren Mundu Erakundearen “Hiri adeitsuak edadetuekin” proiektuaren baitan Berriatuak 2021ean herriaren diagnostikoa egin zuten edadetuen ikuspegitik.. Diagnostikorako Vancouverreko protokoloari jarraitu zen eta bertan jaso ziren honako atalei zegozkien abantaila, desabantaila eta iradokizunak:

- Eraikinak eta aire zabaleko guneak
- Etxebizitza
- Begirunea eta gizarteratzea
- Gizartean parte hartzea
- Komunikazioa eta informazioa
- Herritarren parte-hartzea eta enplegua

Diagnostiko fasea amaitu ostean, hurrengo zeregina hiru urteko ekintza plana diseinatzea izan da eta aurrerapausoak hautemateko adierazleak finkatzea. Diagnostikoan identifikatu ziren aldagaiak aztertu eta datozen urteotako ibilbidea zehaztu da Herri Lagunkoia proiektuaren baitan.

2022ean Berriaturako ekintza -plana egin dugu, hasierako diagnostikoaren emaitzak kontuan hartuta. Diagnostikoan jasotako aldagaietan kategorizatu dira eta lehentasunak ezarri dira. Ostean izaeraren eta hartzailearen arabera sailkatu dira, ondoren, ekintzak diseinatu eta kronograma zehazteko.

Egindako aurrerapausoak hautemateko adierazleak identifikatu dira eta horien jarraipena egiteko Jarraipen Batzordea (Edadetuen mahaia) izendatu da.

HELBURUA

HELBURU OROKORRA

Edadetuek gizarte bizitza eta dinamikako alderdi guztietan presente izatea eta parte hartzea sustatu eta bideratzea epe ertaineko ikuspegiarekin. Edadetuen bizi kalitatea hobetzea eta, ondorioz herri osoarena. Edadetuentzat herri adeitsuagoa izan dadin sustatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOA

- ✓ Adinekoak komunitatearen parte diren sentimendua, haien partaidetza eta jokabide prosozialak areagotzea.
- ✓ Komunitateek beren buruari adinekoen ikuspuntutik begiratu diezaioten sustatzea, identifikatzeko zer arlotan eta modutan izan daitezkeen adeitsuagoak haiekin, zahartzaro eta zahartzearen inguruan dauden irudi negatiboen aurka egiteko.




- ✓ Komunitateak zahartze aktiboa ahalbidetzen duten espazioak izateko ekintza eraldatzaileak identifikatu eta abiaraztea.
- ✓ Arlo honetan zeresana duten eragileek (ordezkari politikoak, teknikariak eta komunitatea bera) konpromiso hau har dezaten lortzea: identifikatutako ekintza eraldatzailea abiaraztea adinekoek komunitatearen bizitzan duten potentziala erabiliz.
- ✓ Proiektuaren bultzatzaile bezala pertsona nagusien protagonismoa bermatzea eta prozesu osoaren garapenean bere lana iraunkorki laguntzea.

METODOLOGIA

1. LEHENTASUNAK IDENTIFIKATU

Diagnostikoan jasotako emaitza era askotakoa da, jasotako aldagaiak kategorizatu egingo dira garrantzia eta erraztasunaren arabera. Matrizeko bi kategorietan puntuazio altuena lortzen dutenak lehentasun modura identifikatuko dira, eta puntuazio txikiena dutenak lehentasun txikiena dutenen modura.

Garrantzia eta Erraztasuna matrizea erabili da lehentasunak finkatzeko



2. EKINTZA PLANA DISEINATU

Lehentasunaren arabera antolatutako adierazleekin horiei erantzuteko ekintza plana diseinatuko da. Aldagai bakoitzaren inguruan honako galderak egin ditugu:

2023-2025 Ekintza Plana



• Zer egingo dugu desabantaila hori konpontzeko?	Ekintza
• Nola egingo dugu?	Baliabideak
• Nork egingo du?	Arduradunak
• Norekin egingo dugu?	Dagokion eragileak
• Noiz ?	Epea
• Eta nola jakingo dugu hori lortu dela?	Adierazleak

URRATSAK

1. URRATSA AURRELANAK

Aurrelanak	
Parte hartzaileak:	
Talde eragilea	
<ul style="list-style-type: none">└ Talde eragilea antolatu: aurretik dagoena aztertu eta egokitu beharrezkoa bada└ Diagnostiko txostena aztertu└ Talde eragilea osatzeko deialdi zabala egin└ Kronograma zehaztu	

2. URRATSA : LEHENTASUNAK FINKATU ETA EKINTZA PLANA DISEINATU

Berriatuko Ekintza plana	
Parte hartzaileak:	Berriatuko Ekintza plana
Edadetuen Talde eragilea	
<ul style="list-style-type: none">└ Lehentasunak finkatu└ Ekintza plana zehaztu	

3-URRATSA: EMAITZEN AURKEZPENA ETA HEDAPENA

4.. Txostenaren aurkezpena	
Parte hartzaileak: Talde eragileak eta ordezkari politikoak	
<ul style="list-style-type: none"> — Amaierako txostenaren erredakzioa eta aurkezpena — Emaitzen hedapena gizarteratzea — Txostena eta aurkezpena 	



4. URRATSA: JARRAIPEN BATZORDEA IZENDATU

- Aurrera begirako hirurteko Jarraipen Batzordea izendatu

6. bilera Edadetuen lan mahaia	
Parte hartzaileak: Talde eragilea, udaleko teknikariak eta ordezkari politikoak	
Jarraipen taldea eta egutegia finkatu	

PARTE HARTZAILEAK

TALDE ERAGILEA

Aurretik dagoen talde eragilea berregituratu behar den edo ez aztertzea izan da lehen zeregina.

Talde eragilea berregituratu da ebaluazioaren dinamizazioa eta koordinazio orokorra garatzeko. Honako kideek osatu dute

1. Berrituko talde eragilea

- ✓ Herriko edadetuak
- ✓ Anaitasuna elkarteko ordezkariak
- ✓ Udaleko ordezkaria
- ✓ Teknikaria



BALIABIDEAK

BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

- Aholkularitza teknikoak: proiektuaren dinamizazioa eta koordinazioa
- Komunikazio arduraduna: proiektuaren komunikazioa eta sustapena
- Udaleko idazkaria: proiektuaren jarraipen ekonomikoa
- Udal ordezkaria: proiektuaren dinamizazioa eta jarraipena

BESTELAKO BALIABIDEAK

Azpiegitura

- Udaleko aretoak batzarrak egiteko

Komunikaziorako baliabideak:

- Ohikoak diren baliabideak erabili dira: gutunak, herriko ohar taula, webgunea...

EKINTZA PLANA

2023-2025 urteetarako ekintza plana definitu du Berriatuko Herri Lagunkoia talde eragileak.

Diagnostikoan zehaztutako 88 hobetzekoak multzokatu eta lehentasunaren arabera antolatuta dira. Ondorioz 33 ekintza dira guztira ekintza planean jasotakoak.



2023-2025 Ekintza Plana



Zk	Gaia	Hobetzekoa	Ekintzak	Arduraduna	Baliabideak	Epea	Adierazleak
1	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Jaitsierak aldapa beherantz egin dira eta beste era batera behar zen. Peralte eskasa da, peraltea kaminorantz doa.	Udalari eskatu konpontzeko. Etxe kontran dagoenetan arazoa egon daiteke. Aztertu ea non egin daitekeen kalterik egin barik (euri ura...). Azterketa egitea banan-banan zelan konpondu daitekeen. Azterketa kontrastatu lan mahaiarekin.	Udala	Udal aurrekontua, baimenak...	2023	Azterketa eginda egotea
2	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Jaitsierak aldapa beherantz egin dira eta beste era batera behar zen. Peralte eskasa da, peraltea kaminorantz doa.	Azterketa egitea banan-banan zelan konpondu daitekeen. Azterketarekin proiektua garatzea. Azterketa eta proiektua kontrastatu edadetuen lan mahaiarekin.	Udala	Udal aurrekontua, baimenak...	2025	Peralte arazoa ahal den neurrian konponduta egotea.
3	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Argiak bitik bat daude Kamintorre inguruan. Ilun dago. Arbolak kentzen dio, eta aurrera joanda ez dago argirik	Farola gehiago ipintzeko eskaera egin udalari.	Udala	Udal aurrekontua,	2023	Joneren pertzepzioa: argi nahiko dagoela izatea.
4	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Autobusetik etxe pintxorantz beheko argiak daude eta ez dute argirik egiten. Bidea markatzen dute baina ez da ikusten.	Farolak (altuak) jartzeko eskaera egin udalari.	Udala	Udal aurrekontua	2024	Farola altuak ipinita egotea. Rodolfoen pertzepzioa: argi nahko dagoela izatea.

2023-2025 Ekintza Plana



5	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Krispinen tailerraren ondoan bankua falta da.	Bankua jartzeko eskaera egin udalari.	Udala	Udal aurrekontua	2023	Bankoa ipinita egotea
6	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Auto asko dabil eta ez da zebra-biderik eta semafororik errespetatzen. Hanka atera behar da.	Semaforoak jartzea zebra bideetan edota zebra bideak altuerarekin jarri. Goiko aldean errotonda egiten denean agian altueran jar daiteke zebra bidea, mantsotu egingo du abiadura. Beheko aldean eskatu egin behar da BFAko errepide sailean hobetzea. Hobekuntzak edadetuen lan mahaian baloratu	Edadetuen lan mahaia	Udal aurrekontua	2024 Goiko errotondako amaizurako	Neurriak hartu diren aztertu Lantaldearen balorazioa
7	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Debekatutako norabidetik sartzen dira autoak.	Norabidea aldatu eta kontrako norabidean gutxiago ibiliko dira. Portal aurreetan pibotea edo zerbait jarri.	Udala	Udal aurrekontua	2023	Norabidea aldatuta egotea Portalak babestuta egotea
8	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Farmazia pareko ispilua (errepidekoa) batzuetan goizez tapatuta (lanbrotuta) egoten da. Plazakoa ere bai.	Semaforoak jarriko dira eta ispilua kenduko da, proiektua bideratuta dago. Jarraipena egin.	udala	udal aurrekontua	2023	Semaforoak jarrita egotea
9	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Aterpea falta da, umeentzat batik bat.	Parkeari aterpea jartzea aztertuko da. Ludoteka zabaltzea eguraldi txarra dagoenerako.	Udala	udal aurrekontua	2024	Aterpea jartzea aztertuta egotea. Ludoteka zabalik egotea eguraldi txarra dagoenean

2023-2025 Ekintza Plana



10	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Estolda usaina egoten da farmazia parean eta herri guztian	Plakak jarri dira usaina kentzeko hilean hilean aldatu behar dira. Diagnostikoan jasotakoaren ondoren, Farmaziakoa zigilatu zen eta orain ez da usainik egoten. Mantenimendua egin.	Udala	Udala	urtero	Edadetuen lan mahaiko partaideen pertzepzioa eta iritzia
11	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Farmazia paretik futbol zelaira patinete/bizikletak ibiltzen dira, arin ibiltzen dira espaloitik (bizikletak batik bat).	Sentsibilizazioa: a-Udal foroan aipatu patinete eta bizikletekin dagoen arazoa. Umeei komentatu eta txirrina jartzeko eskatu. b-Eskolarekin berba egin gaiaren inguruan haurrak sentsibilizatzeko, eta elkarlana eskaini.	Edadetuen lan mahaia		2023	Edadetuen lan mahaiko partaideen pertzepzioa eta iritzia
12	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Arketa tapak solte daude, kamioi eta autoak pasatzean zarata ateratzen dute.	Eskaera egitea BFA errepide sailari: errepideko gabezien txostena egin eta konpontzeko eskatu.	Edadetuen lan mahaia		2024 Goiko erroto ndako amaioa amaitu takoan	Edadetuen lan mahaiko partaideen pertzepzioa eta iritzia
13	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Zentralera iristea ez da eroso (barrua bai). Gurpildun aulkientzako txarto daukate	Autobus geralekua egiten denean konpontzea.	Udala	Udal aurrekontua	2023	Zentralerako irisgarritasuna hobetzeko lanak eginda egotea

2023-2025 Ekintza Plana



14	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Espaloietan autoa ez jartzea	a- Kontzientziazio kanpaina egin. b- Ertzainei sarri pasatzeko eskatu.	Udala	Udal aurrekontua	2023	Edadetuen lan mahaiko partaideen pertzepzioa eta iritzia
15	Garraioa	Zubia eta Azkartzegiko gurutze-bidea puntu beltzak dira. Autoak bazterrera arrimatzen dira eta errobera lehertzen zaie.	a-Pintura islatzailea (reflektantea) jarri piboteari. b-Seinalea jarri bidea estutzen dela eta lehentasuna nork daukan adierazten duena.	Udala eskatu Trafikok jarri	Udal aurrekontua	2023	Seinaleak jarrita egotea
16	Garraioa	Autoak ez dira 50 km orduko pasatzen, arinago doaz.	Semaforoak jarri.	Udala	Udal aurrekontua	2023	Semaforoa jarrita egotea
17	Garraioa	Jendeak ez daki landa taxi aukerarik dagoenik, 2 € ordainduta auzoetatik kalera etor daitezke egun bat arinago deituta .	Urtean behin aldizkarian jarri zerbitzuaren berri	Udala	Udal aurrekontua	Urtero	Urtean behin aldizkarian jasotzea informazioa. Erabiltzaile kopurua handitzea.
18	Garraioa	Autobusa noiz datorren ez dakigu	Autobus parada egiten denean ordutegien panel elektronikoa ipintzeko eskatu	Udala		2023	Panela jarrita egotea (batik bat Ondarroarako norabidean)
19	Garraioa	Radar finkoa jartzea.	Panelak, disuasio-radarrak "aurpegitxoena" jartzea eskatu herri sarreratan.	Udala		2023	Radarra jarrita egotea

2023-2025 Ekintza Plana



20	Garraioa	Trafiko, abiadura arazoari irtenbidea eman	Eskaera bideratu Herri lagunkoia talde eragiletik Bizkaiko Foru Aldundira. Sinadura bilketa, eskaera...	Edadetuen lan mahaia		2023	Eskaera bideratuta egotea. Edadetuen lan mahaiaren pertzepzioa ibilgailuena abiadurari buruz.
21	Etxebizitza	Ez daukagu igogailurik etxe askotan.	a-Dirulaguntzen inguruko informazioa zabaldu gizarte zerbitzuetatik. b-Hirigintza aholkulariak aholkuak eman dauden aukeren inguruan. c-Igogailurik ez duten etxeetan zabaldu informazioa	Udala		2023	Informazioa sistematikoki ematea udaleko zerbitzuek. Igogailua jartzeko eskaerak kopurua
22	Etxebizitza	Ez dago etxebizitza aldatzeko aukera handirik, alokatzeko etxebizitza gutxi daude, hutsik etxebizitza gutxi daude.	HAPO berria onartu eta etxebizitza parkea berritu.	Udala		2023	HAPO berria onartuta izatea. Alokairu etxebizitza kopurua.
23	Etxebizitza	Ez dago etxebizitza aldatzeko aukera handirik, alokatzeko etxebizitza gutxi daude, hutsik etxebizitza gutxi daude.	Alokairuzko etxebizitza sozialak egin.	Udala		2025	HAPO berria onartuta izatea. Alokairu etxebizitza kopurua.
24	Etxebizitza	Alokairua garesti dago.	Alokairuzko etxebizitza sozialak egin.	Udala		2025	HAPO berria onartuta izatea. Alokairu etxebizitza kopurua.

2023-2025 Ekintza Plana



25	Etxebizitza	Erosteko etxe gutxi daude eta garestia dira.	HAPO berria onartu eta etxebizitza parkea erregulatu	Udala		2023	HAPO berria onartuta izatea. Etxebizitza beri kopurua.
26	Etxebizitza	Etxe berriak egin behar dira gazteak herrian geratzeko, prezio merkean eta onak, erraztasunak emanda	HAPO berria onartu eta etxebizitza parkea erregulatu	Udala		2023	HAPO berria onartuta izatea. Etxebizitza beri kopurua.
27	Gizartean parte hartzea	Ekintza, arlo guztietan berdina gabiltza, elizan, koruan..	Jubilatu elkarteari proposatu lanketa egiteko jendea animatzeko karta jokora, egotera, tertuliara... Adibidez: Aulestin jubilatu elkarteak egiten duen bezala kafera gonbidatu hilean behin edo bitan.	Edadetuen lan mahaia, Anaitasuna elkarteak		Urtero	Jubilatu elkartearen erabilera handiagoa izatea. Edadetuen lan mahaiaren pertzepzioa.
28	Gizartean parte hartzea	Mugimendu gutxi dago jubilatu elkartearen orain. Ekintzak egiten direnean egoten da jendea.	Jubilatu elkarteari proposatu lanketa egiteko jendea animatzeko karta jokora, egotera, tertuliara... Adibidez: Aulestin jubilatu elkarteak egiten duen bezala kafera gonbidatu hilean behin edo bitan.	Edadetuen lan mahaia		urtero	Jubilatu elkartearen erabilera handiagoa izatea. Edadetuen lan mahaiaren pertzepzioa.

2023-2025 Ekintza Plana



29	Komunikazioa eta informazioa	Digital modura ez gaude preparatuta	Kzgunean jubilatuentzako ikastaroak antolatu	Edadetuen lan mahaia		2023	Kzgunean antolatutako ikastaro kopurua.
30	Komunikazioa eta informazioa	Posta elektronikoa badaukagu baino gutxik	Kzgunean jubilatuentzako ikastaroak antolatu	Edadetuen lan mahaia		2023	Kzgunean antolatutako ikastaro kopurua.
31	Komunikazioa eta informazioa	Jendeak paperak ez ditu irakurtzen	Udaleko watssap taldearen sustapena egin jubilatutako elkartearen bitartez	Edadetuen lan mahaia		2023	Watsapp taldeko jubilatutako kopurua handitzea.
32	Lana eta herritarren parte-hartzea	Ez dauka errekonozimendurik lan boluntarioak	Lau urtero errekonozimendu ekintza egin lan boluntarioan parte hartzen dutenei.	Edadetuen lan mahaia	Udal aurrekontua	2023	Egindako errekonozimendu ekintzak

2023-2025 Ekintza Plana



33	Gizartean parte hartzea	Herrian izan daitezkeen egoera zaurgarriak, bakardade egoerak, edo egoera arriskutsuak detektatzea.	Harreman-sare natural komunitarioak eta udalerrria babestu eta zaintzeko agenteak identifikatu Lea Artibai Amankomunagoarekin elkarlanean Herri-zaintza proiektua bideratu	Edadetuen lan mahaia eta Lea Artibai Amankomunazgoa	2023	Herri zaintza proiektua martxan egotea Herri zaintza proiektuan jubilatuek parte hartzea
34	Gizartean parte hartzea	Aktibo mantentzea eta taldean aritzea ondo dago.	GYM berdea moduko aukera aztertu eta martxan jarri	Edadetuen Lan mahaia	2023	Gym berdea martxan izatea Edadetuen parte hartzea
35	Gizartean parte hartzea	Parte hartzeko foroa sortu	Edadetuen lan mahaia eratu eta sei hilero batu maiatza /urria	Udala eta jubilatuen elkarte	2023	Eratuta izatea eta urtean birritan batzea

KRONOGRAMA

2023

2023				
Zk.	Gaia	Hobetzekoa	Ekintzak	Epea
1	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Jaitsierak aldapa beherantz egin dira eta beste era batera behar zen. Peralte eskasa da, peraltea kaminorantz doa.	Udalari eskatu konpontzeko. Etxe kontran dagoenetan arazoa egon daiteke. Aztertu ea non egin daitekeen kalterik egin barik (euri ura...). Azterketa egitea banan bana zelan konpondu daitekeen. Azterketa kontrastatu lan mahaiarekin.	2023
3	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Argiak bitik bat daude Kamintorre inguruan. Ilun dago. Arbolak kentzen dio, eta aurrera joanda ez dago argirik	Farola gehiago ipintzeko eskaera egin udalari.	2023
5	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Krispinen tailerraren ondoan eserlekua falta da.	Eserlekua jartzeko eskaera egin udalari.	2023
7	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Debekatutako norabidetik sartzen dira autoak.	Norabidea aldatu eta kontrako norabidean gutxiago ibiliko dira. Portal aurreetan pibotea edo zerbait jarri.	2023
8	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Farmazia pareko ispilua (errepidekoa) batzuetan goizez tapatuta (lanbrotuta) egoten da. Plazakoa ere bai.	Semaforoak jarriko dira eta ispilua kenduko da, proiektua bideratuta dago. Jarraipena egin.	2023
11	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Farmazia paretik futbol zelaira patinete/bizikletak ibiltzen dira, arin ibiltzen dira espaloitik (bizikletak batik bat).	Sentsibilizazioa: a-Udal foroan aipatu patinete eta bizikletekin dagoen arazoa. Umeei komentatu eta txirrina jartzeko eskatu. b-Eskolarekin berba egin gaiaren inguruan haurrak sentsibilitateko, eta elkarlana eskaini.	2023

2023-2025 Ekintza Plana



13	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Zentralera iristea ez da eroso (barrua bai). Gurpildun aulkientzako txarto daukate	Autobus geralekua egiten denean konpontzea.	2023
14	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Espaloietan autoa ez jartzea	a- Kontzientziazio kanpaina egin. b- Ertzainei sarri pasatzeko eskatu.	2023
15	Garraioa	Zubia eta Azkartzegiko gurutze-bidea puntu beltzak dira. Autoak bazterrera arrimatzen dira eta errobera lehertzen zaie.	a-Pintura islatzailea (reflektantea) jarri piboteari. b-Seinalea jarri bidea estutzen dela eta lehentasuna nork daukan adierazten duena.	2023
16	Garraioa	Autoak ez dira 50 km orduko pasatzen, arinago doaz.	Semaforoak jarri.	2023
18	Garraioa	Autobusa noiz datorren ez dakigu	Autobus parada egiten denean ordutegien panel elektronikoa ipintzeko eskatu	2023
19	Garraioa	Radar finkoa jartzea.	Panelak, disuasio-radarrak "aurpegitxoena" jartzea eskatu herri sarreratan.	2023
20	Garraioa	Trafiko, abiadura arazoari irtenbidea eman	Eskaera bideratu Herri lagunkoi talde eragiletik Bizkaiko Foru Aldundira. Sinadura bilketa, eskaera...	2023
21	Etxebizitza	Ez daukagu igogailurik etxe askotan.	a-Dirulaguntzen inguruko informazioa zabaldu gizarte zerbitzuetatik. b-Hirigintza aholkulariak aholkuak eman dauden aukeren inguruan. c-Igogailurik ez duten etxeetan zabaldu informazioa	2023
22	Etxebizitza	Ez dago etxebizitza aldatzeko aukera handirik, alokatzeko etxebizitza gutxi daude, hutsik	HAPO berria onartu eta etxebizitza parkea berritu.	2023

2023-2025 Ekintza Plana



		etxebizitza gutxi daude.		
25	Etxebizitza	Erosteke etxe gutxi daude eta garestiak.	HAPO berria onartu eta etxebizitza parkea erregulatu	2023
26	Etxebizitza	Etxe berriak egin behar dira gazteak herrian geratzeko, prezio merkean eta onak, erraztasunak emanda	HAPO berria onartu eta etxebizitza parkea erregulatu	2023
29	Komunikazioa eta informazioa	Digital modura ez gaude preparatuta	Kzgunean jubilatuentzako ikastaroak antolatu	2023
30	Komunikazioa eta informazioa	Posta elektronikoa badaukagu baino gutxiak	Kzgunean jubilatuentzako ikastaroak antolatu	2023
31	Komunikazioa eta informazioa	Jendeak paperak ez ditu irakurtzen	Udaleko whatsapp taldearen sustapena egin jubilatuei elkartearen bitartez	2023
32	Lana eta herritarren parte-hartzea	Ez dauka errekonozimendurik lan boluntarioak	Lau urtero errekonozimendu ekintza egin lan boluntarioan parte hartzen dutenei.	2023
33	Gizartean parte hartzea	Herrian izan daitezkeen egoera zaurgarriak, bakardade egoerak, edo egoera arriskutsuak detektatzea.	Harreman-sare natural komunitarioak eta udalerrria babestu eta zaintzeko agenteak identifikatu Lea Artibai Amankomunazgoarekin elkarlanean Herri-zaintza proiektua bideratu	2023
34	Gizartean parte hartzea	Aktibo mantentzea eta taldean aritzea ondo dago.	GYM berdea moduko aukera aztertu eta martxan jarri	2023

2023-2025 Ekintza Plana



35	Gizartean parte hartzea	Parte hartzeko foroa sortu	Edadetuen lan mahaia eratu eta sei hilero batu maiatza /urria	2023
----	-------------------------	----------------------------	---	------

2024

2024				
Zk.	Gaia	Hobetzekoa	Ekintzak	Epea
4	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Autobusetik etxe pintxorantz beheko argiak daude eta ez dute argirik egiten. Bidea markatzen dute baina ez da ikusten.	Farolak (altuak) jartzeko eskaera egin udalari.	2024
9	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Aterpea falta da, umeentzat batik bat.	Parkeari aterpea jartzea aztertuko da. Ludoteka zabaltzea eguraldi txarra dagoenerako.	2024
6	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Auto asko dabil eta ez da zebra-biderik eta semafororik errespetatzen. Hanka atera behar da.	Semaforoak jartzea zebra bideetan edota zebra bideak altuerarekin jarri. Goiko aldean errotonda egiten denean agian altueran jar daiteke zebra bidea, mantsotu egingo du abiadura. Beheko aldean eskatu egin behar da BFAko errepide sailean hobetzea. Hobekuntzak edadetuen lan mahaian baloratu	2024 Goiko errotondako amaitutakoa

2023-2025 Ekintza Plana



12	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Arketa tapak solte daude, kamioi eta autoak pasatzean zarata ateratzen dute.	Eskaera egitea BFA errepide sailari: errepideko gabezien txostena egin eta konpontzeko eskatu.	2024 Goiko errotondako amaitutakoa
----	------------------------------------	--	--	------------------------------------

2025

2025				
Zk.	Gaia	Hobetzekoa	Ekintzak	Epea
2	Eraikinak eta aire zabaleko guneak Gaia	Jaitsierak aldapa beherantz egin dira eta beste era batera behar zen. Peralte eskasa da, peraltea kaminorantz doa.	Azterketa egitea banan bana zelan konpondu daitekeen. Azterketarekin proiektua garatzea. Azterketa eta proiektua kontrastatu edadetuen lan mahaiarekin.	2025
23	Etxebizitza	Ez dago etxebizitza aldatzeko aukera handirik, alokatzeko etxebizitza gutxi daude, hutsik etxebizitza gutxi daude.	Alokairuzko etxebizitza sozialak egin.	2025
24	Etxebizitza	Alokairua garesti dago.	Alokairuzko etxebizitza sozialak egin.	2025

URTERO

URTERO				
Zk.	Gaia	Hobetzekoa	Ekintzak	Epea
10	Eraikinak eta aire zabaleko guneak	Estolda usaina egoten da farmazia parean eta herri guztian	Plakak jarri dira usaina kentzeko hilean hilean aldatu behar dira. Diagnostikoan jasotakoaren ondoren, Farmaziakoa zigitatu da eta zen orain ez da usainik egoten. Manteni mendua egin.	urtero

28	Gizartean parte hartzea	Mugimendu gutxi dago jubilatutako elkartean orain. Ekintzak egiten direnean egoten da jendea.	Jubilatu elkarteari proposatu lanketa egiteko jendea animatzeko karta jokora, egotera, tertuliara... Adibidez: Aulestin jubilatutako elkartek egiten duen bezala kaferak gonbidatu hilean behin edo bitan.	urtero
17	Garraioa	Jendeak ez daki landa taxi aukerarik dagoenik, 2 € ordainduta auzoetatik kalera etor daitezke egun bat arinago deituta .	Urtean behin aldizkarian jarri zerbitzuaren berri	Urtero
27	Gizartean parte hartzea	Ekintza, arlo guztietan berdinak gabiltza, elizan, koruan..	Jubilatu elkarteari proposatu lanketa egiteko jendea animatzeko karta jokora, egotera, tertuliara... Adibidez: Aulestin jubilatutako elkartek egiten duen bezala kaferak gonbidatu hilean behin edo bitan.	Urtero

JARRAIPIEN BATZORDEA: EDADETUEN LAN MAHAIA

Ekintza plana diseinatu ostean jarraipenerako Edadetuen Lan Mahaia izendatu da. Talde hori talde eragileko kideek, udal ordezkari politikoek eta udal teknikariek osatuko dute.


Talde horren funtzioa ekintza planean zehaztutako ekintzen dinamizazioa eta jarraipena egitea izango da. Deialdik egiteko ardura udal ordezkariak izango dute.

Batzarrak sei hilean behin egingo dira : maiatza-ekaina eta urria-azaroan.

EBALUAZIOA

Ekintza planaren jarraipenerako izendatutako Edadetuen Lan Mahaia arduratuko da ekintzen burutze maila aztertu eta dagokion jarraipena egiteaz, horretarako ekintza planean ezarri diren adierazleak erabiliko dira eta jarraipenerako egutegia zehaztu da.

Jarraipena egiteko ekintza bakoitza burutu den edo ez, esperotako emaitza lortu den, eta beharrezkoak balira hobekuntza neurriak edo neurri zuzentzaileak zehaztuko dira.





EBALUAZIO FITXA	
Helburu Estrategikoa	
Ekintza	Zk
Adierazleak	Emitza
Hobetzekoak/Kontuan hartzekoak	